

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

21/2025 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Huts materiala zuzentzea Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 1eko 11/2025 Foru Dekretuan (foru dekretu horren bidez, onespena eman zitzaion Mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua aldatzeari eta 2025eko deialdiari)

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 1eko 11/2025 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua aldatzeari eta laguntza horien 2025eko deialdiari.

Bigarren xedapenean, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatzen da: hain zuzen, mahastia Errioxa Jatorri Deituran inskribatuta egoteko betebeharra kentzen da. Hala ere, huts bat antzeman da mahastien antzintasuna kontuan hartzeko ezartzen den urtean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Azaldutakoagatik, nahitaezko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Huts materiala zuzentzea Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 1eko 11/2025 Foru Dekretuaren bigarren xedapenean (foru dekretu horren bidez, onespena eman zitzaion Mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua aldatzeari eta 2025eko deialdiari).

Honako hau dioen lekuan:

— Mahastiak 1960koak edo zaharragoak izango dira eta Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egongo dira, eta gutxienez 5.000 m²-ko azalera hartuko dute.

Hau esan behar du:

— Mahastiak 1965ekoak edo zaharragoak izango dira eta Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egongo dira, eta gutxienez 5.000 m²-ko azalera hartuko dute.

Azken xedapena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2025ko ekainaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritzaren Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA